

## Bibliografia

**MICHEL BALLARD: "La traduction de la théorie à la didactique".** Université de Lille III. Travaux et Recherches. 1984.

Lilleko unibertsitatean itzulpenaren inguruan antolatutako mintegiari esker Michel Ballardek bildutako estudioez osatutako liburu honen aurkezpenaren hasiera bertatik, eta Jean René Ladmiraletan hitzak hartuta, esaten digu Michel Ballardek berak: "Instituzio pedagogikoaren barruan itzulpenak eduki dezakeen lekuaz hainbestetan egin den galderari erantzutea zen mintegi hau zabaltzerakoan genuen helburua". Liburua osatzen duten hamaika artikuluek, itzulpena eta pedagogiaren artean ematen diren harreman aunitz azaltzen digute; horrela, bada, Michel Ballard lehenengo artikuluan: "La traduction relève-t-elle d'une pédagogie?" hirugarren artikuluan J.R. Ladmiraletan bezala, itzulpenari hizkuntza biziaren irakaskuntzan leku egiten saiatzen da. Hizkuntza biziaren irakasteko metodo berriek, hizkuntza hilen irakaskuntza tradizionalaren oposizioan sortu direla eta hurrek ama-hizkuntza ikasteko ibili ohi duten bidetik jo nahirik, itzulpena baztertu egin dutela adierazten digu, ikasleak hizkuntza berriaz beste sistema linguistikoren erreferentziarik gabe jabe daitezela.

Baina Michel Ballarden ustetan bi hizkuntza-sistemen arteko interferentziak ezinbestekoak dira ikasle helduengan, hurrek ez bezala sistema baten jabe bait dira hizkuntza arrotza ikasten hasitakoan, eta hartara jotzen bait dute etengabe; horregaitik, bada, itzulpena joera naturala da eta bi hizkuntzen disimilaziorako balio haundikoa gertatzen da. Erreflexio linguis-

tikoaren beharra azpimarratzen du, horretan itzulpen teoriari leku handia eginez: Georges Mounin, Maurice Pergnier, etab. ezagutu behar direla esaten digu, ondoren itzulpena praktikatzera pasatzeko Vinay-Darbelnet, Nida, etab.en eskutik. Profesionalen itzulpenak aztertzea proposatzen digu ikasleek bereak egiten hasi aurretik. Itzulpenari, beraz, eta bertsioari batez ere, ama-hizkuntzan egiten den sistema arrotzaren esplorazio arrazonatua bezala, erabateko garrantzia ematen dio, hizkuntza arrotzaz jabetzeko beharrezkoa den erreflexio linguistikoaren gidari bezala.

Itzulpena didaktika baten tresna bezala agertzen duen artikulua honen ondoren, bigarren artikulura pasatakoan, itzulpena didaktikaren helburu bihurtzen zaigu: Georges Mouninek "Pour une Pédagogie de la Traduction" izenpean Lilleko unibertsitatean emandako hitzaldi honetan, itzulpenari buruz garai batean zegoen iritzi fatalista -itzultzeko gaitasuna dohai misteriozua bait zen, inolako metodologiak eragiterik ez zegoena- gaintutua dela dio, eta dagoeneko gaitasun hori lantzeko metodoak, praktikak, esperientziak eta doktrinak han hemenka aztertzen hasiak direla. Esfortzu kolektibo nahiz banakako horietatik sortu diren lanen erreferentzia ematen digu 1971-1981 hamar urteotan sortu diren gauza interesgarrienak komentatuz; ondoren itzultzeko eta itzultzen irakasketeko dagoen linguistikaren beharrez arituko zaigu, eta amaitzeko itzultzaileak ezagutu behar dituen oinarritzko obra batzuk proposatzen dizkigu, bakoitzari komentariotxo bat eskainiz: E. Nida, M. Wandruszka, J.C. Catford, R.W. Jumpelt, Jean Maillot (bi hauek itzulpen tekniko eta zientifikorako), Vinay eta Darbelnet, etab. J.R. Ladmiraletan "Traduire: Théorèmes pour la traduction" lana aparte hartu eta luze-xeago komentatzen du. Eta obra hauez gain beste zerbait ere gomendatzen digu: itzulpenari buruzko aldizkariak irakurtzea hain zuzen.

Hirugarren artikulua, Jean René Ladmiraletan "Pour la Traduction dans l'enseignement des langues, 'Version' moderne des humanités", itzulpenaren funtzio pedagogikora itzultzen da berriro, baina Senezeko ale honetan bertan irakur dezakeuzenez ez digu hemen komentatuko.

Hurrengo Claude Taitilonen artikulua motz bat da: "Place de la linguistique en pédagogie de la traduction". Testu pragmatikoen itzulpenaz arduratzen da eta teorizatorako bideak zabaltzeko hizkuntzalaritzaren beharra seinatzen duelarik ere, teorizazio horretan beste disziplinak ere kontutan hartu behar direla dio, itzulpenaren arazoak ez bait dira hizkuntz-arazoak soilik.

Hurrengo artikulutxoan ere hizkuntzen estudiantatik harantzago dagoen "situazioa"ren garrantzia azpimarratzen zaigu (Maurice Pergnier: "La Traduction, les structures linguistiques et le sens"). Itzulpenean bilatu behar diren baliokideak esangurazko unitateen artean bilatu behar direla esaten digu Maurice Pergnierek, eta ez egituren unitateen artean. Itzultzeko makinaren garapenari buruzko eta garapen horren une bakoitzak suposatzen duen teorizazio mailari buruzko ohar batzuk egiten dizkigu ere amaitzeko.

"Les problèmes de la Traduction Automatique: Aspects de l'expérience anglais-français du Centre de Recherches Linguistiques en Traduction automa-

tique de l'Université de Nancy II. (CRAL: CELTA)" artikuluan Guy Bourquin eta Marie-Claude Bourquinek itzulpen automatikoaren nondik-norakoa azaldu nahi digute: zein zailtasunei aurre egin behar izan dien, zenbateraino lan enpiriko horrek itzulpenaren teorizazioa bultzatu duen, zein nolako aurrerapenak egin diren, eta zein puntutan dagoen gaur egun eta zein bidetik abiatzen den, batez ere ingelesa eta frantsesaren arteko itzulpen teknikoan beraiek egin dituzten eta egiten ari diren ikerketetan oinarrituz. Azalpen teorikoaren ondoren beren ikerketen berri zuzena ematen digute. Lehen esan dugun bezala ingelesa eta frantsesa erabiltzen dituzte, ingelesa jatorrizko hizkuntza dute eta frantsesa xede-hizkuntza. Lehenik jatorrizko testuaren azterketa deskribatzen digute, ondoren transfert lexikala eta sintaktikoarena eta azkenik xede-hizkuntzazko testuaren sorkuntza. Bukaeran itzulpen automatikoak ikerketa teorikorako duen garrantzia azpimarratzen dute. Badirudi inoiz "itzulgailu" deituko omen duguna momentuz "ikergailu" dugula oraindik.

"L'aspect verbal en Anglais et en Français. Note de systématique comparée" izeneko Georges Garnieren artikulua itzulpenaren azterketa dinamikoaren alde mintzatuz hasten zaigu. Vinay eta Darbelnetek ("Stylistique comparée du français et de l'anglais", 1958) eta Malblanckek (Stylistique comparée du français et de l'allemand", 1961) zuten ikuspuntu estatistikotik Ljudskanoven ikuspuntu dinamiko edo operatibora emandako aurrera pausoa seinalatu ondoren, sistematika konparatuaren bitartez aditzaren aspektua aztertzeari ekingo dio, eta aspektuaren beraren definizioari doakionean hizkuntzalariak bat ez datozela azpimarratzen duelarik, berak kategoria gramatikal bezala, modua eta denboraren parean jarriko du, beraiengatik berezia eta areago oraindik, haien gainetik ere jarriko du, inmanentzia eta transzendentziaren arteko oposizio bitartean kokatua. Ondoren ingelesaren eta frantsesaren aspektuaren sistematika aztertzen du eta konparaketak eta itzulpenak dituzten arazoak ere azaltzen dizkigu, adibide askorekin hornitzen dituelarik azalpenak.

Hurrengo artikulua Michel Ballarden eskutik datorkigu berriro. "Le syntagme prepositionnel expansion du syntagme nominal dans sa traduction de l'anglais au français. Elements de morphosyntaxe différentielle pour une utilisation didactique de la traduction" izen luzeak adierazten duen bezala ingelesaren preposizio-sintagmaren frantseseko baliokide funtzional eta semantiko posibleen bilatzeari ekingo dio. Horretarako, lehenengo preposizio-sintagmaren morfologia, funtzioa eta semantismoa aztertuko ditu, gero frantsesera pasatzerakoan gertatzen diren aldaketa morfosintaktikoen arauera itzulpenen sailkapena egiteko: zero gradua suposatuko lukeen egituren kalkotik hasita, gerta daitezkeen aldaketen mailaketa egiten du eta banan banan aztertzen, lehenengo I.S.ren osagaien banakako aldaketak: preposizioarenak (konmutazioa, modulazioa) eta izen sintagmarenak (determinatzailearen ezabatzea, transposizioa); bigarren mailan osagaien arteko interferentzia morfosintaktikoa aztertzen du; hirugarrenean preposizio-sintagmaren konmutazioa; laugarren mailan modifikazioa proposatzen digu, beraren

azalpen eta azterketa luzea eginik; eta aldaketa morfosintaktiko haundiena bezala eta amaitzeko preposizio-sintagma osatzen duen izen-sintagma konplexuaren berregiturapena azaltzen digu. Pauso guztiak zenbait adibidekin hornitutako lan sistematikoa da Michel Ballarden hau.

Ondorengo lanean "Terminologie et traduction" Michel Krzak itzulpen-gintzan lexikologiako arazoez duten garrantziaz arituko da: Itzultzailearen betebeharrean prezisioak duen garrantziagatik, lexikologia eta baliokidetasun arazoak oso maiz sortzen direla dio, eta itzultzaileak hesparru hain diferente eta hain aldakorretan aritu behar duenez, espezialisten laguntza beharko duela etengabe, kontsultarako material idatzi oparoaz gain. Lexikoa zaintzearen betekizun honetan bi adibide eta eredu aipatzen dizkigu: Quebecoko hizkuntza frantsesaren garapenerako ofizina eta Otawako estatuko idazkaritzako itzulpen bulegoa; elebitasunerako politika fermuan oinarriturik lanean ari diren erakunde ofizialak, hain zuzen.

Terminologoen beharra eta egitekoa azaltzen dizkigu eta Quebecen egindako esperientzien berri ematen; ondoren Frantziara dator bertan lexikoaz arduratzen diren erakundeen berri emateko; arlo honetan eman diren pausoak azaltzen dizkigu, bai eta sortzen diren arazoak ere, horrela, bada, esaten digu gauza bat dela terminoak proposatzea eta bestea proposamen hori jendartean onartua izatea, erakunde publikoek bere gain hartuko beharko dutela, beraz, behar bezalako terminoak aukeratzea eta zabaltea, eta ardura haundiz hartu ere. Itzultzaileak ere lan horretan zeregin haundia duela dio, hizkuntzaren finkatzaile dela esanez. Azkenik hizkuntzaren malgutu beharra, muga estuegiak hautsi beharra aipatzen du, aurrerapen teknologikoen eskakizunei erantzuteko gauza izango ba da.

Erreflexio guzti hauek frantsesaren gainean egiten dituen arren euskarari buruz ari dela dirudi askotan, hala nola zenbait produktuen fitxa teknikoak ingelesez eta frantsesez emanak izan arren frantses askok eta askok ingelesezko azalpenak irakurtzen dituztela dionean.

Liburuarekin amaitzeko Jean René Ladmiralet beste artikulu bat dator: "Traduction et psychosociologie". J.R. Ladmiralet artikulu honetan, itzulpena psikolinguistika kolektiboaren ikuspuntutik aztertzeari ekiten dio: Taldeen bizitzan elebitasunaren hizkuntza bariabilek ezartzeak duen eragina ikertu nahian zenbait alemaniar eta frantses gazte bildu eta beraien arteko harremanei begira jartzen zaigu. Esperientzia honen begira psikosozilogoez gain etnologoak, filosofoak, soziologoak, psikologoak eta hizkuntzalariak daude eta bertan parte hartzen dutenak, berriz, maila sozial, ekonomiko, kultural, etab. desberdinetako gazteak dira. Hipotesia da elebitasunaren eta nazionalitatearen bariabilek ezartzeak taldearen dinamika erabat aldatu egiten duela. Talde hauek elebitasuna aztertu ohi den talde naturalen oso bestelakoak dira, artifizialak, denbora mugatua dute, partaideak boluntarioak dira eta bi hizkuntzak maila berean dira, pareko prestigioa dute, talde esperimentalak dira. Partaideen artean ez dute zertan guztiek elebidunak izan behar, denetarik dago eta egoera honetan sortzen diren komunikazio-arazoak taldearen arazo bihurtzen direlarik taldea hizkuntz arazo honen

inguruan eta konponbidea zaion itzulpenaren inguruan antolatuko dela dio. Honek taldetan gertatzen diren fenomenoak aztertzeko bidea zabaltzen duela dio: Nork itzuliko du, noiz eta zer? zein hizkuntza izango da nagusi? beti? zein kasutan? zeren arauera? Galdera hauek eta beste zenbaitentzako erantzun bila arituko zaigu J.R. Ladmiral liburuaren azken artikulua honetan.

Liburu honetan agertzen diren itzulpengintzara hurbiltzeko bide desberdinetatik azpimarratu beharra dago denetan nabari den itzulpenari tratamendu sistematiko eta zientifikoa eman nahia; traduktologia izango den eta oraindik hastapenetan besterik ez dagoen zientzia eratzearen bidean jarriak direla.

Bakartxo Arrizabalaga